

OIARTZUNGO HONDAKINEN GIDA



Herritar guztion ohitura onei eta konpromisoari esker, Oiartzunen hondakinen %80tik gora egoki sailkatzen dugu, eta ondorioz, Oiartzun birziklatze-maila altuenetakoa duten herrien artean dago. Ontzi bakoitza ondo sailkatzea edo hondakinak modu arduratsuan kudeatzea gure osasuna, gure ingurunea eta etorkizuna zaintzea da.

Europako legediak 2035erako aurreikusten dituen birziklatze-mailak Oiartzunen 2010etik betetzen dira, hain zuzen ere atez ateko bilketa-sistema martxan jarri zenez geroztik. Etorkizunera begira, Oiartzunen erronka da zenbakietatik haratago begiratu eta ahalik eta gutxien kutsatzea.

Horren guztiaren helburua argia da: gure osasuna zaindu eta ingurua txukun mantentzea. Herri gisa ditugun ohitura onak sendotuz eta etengabe hobetuz, etorkizun iraunkorrago baterako bidea eraikitzen dugu, non birziklapenari eta ingurumenarekiko errespetuari dagokion lekua eskaintzen diogun.

Oiartzun, trantsizio ekologikoan ere bidea egiten duen herria.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Hondakinak **20:00etatik 22:00etara** zintzilikailuan utzi behar dira eta **egun bakoitzean hondakin mota bat utz daiteke**.

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
ONTZI ARINAK	PAPERA ETA KARTOIA	BIOHONDA-KINAK	ONTZI ARINAK	BIOHONDA-KINAK	ERREFUSA	BIOHONDA-KINAK

Salbuespena: pardelak, konpresak edota etxeke animalien gorotzak (errefusa) egunero atera daitezke plastikozko poltsa batean aparte jarrita.



Etxe bakoitzari dagokion kodea errespetatu.



Hondakinak dagokion zintzilikarioan utzi behar dira, inoiz ez lurrean botata.

Salbuespen gisa, gertueneko ekarpen gunee bat erabili dezakezu zure hondakinak botatzeko (adibidez, oporretara zoazenean). Udaltzainetan eskura dezakezu ekarpen guneko giltza eta hondakinak bota ondoren itzuli egin behar da.

FUNTZIONAMENDUA

BIOHONDAKINAK

JANARI HONDARRAK, GORDINIK NAHIZ SUKALDATUTA.




Biohondakinak udaleko kuboan atera behar dira.

Auto edo auzokonposta egin nahi izanez gero, jarri gurekin harremanetan.



Poltsa erabiltzekotan konpostagarria izan behar du, inoiz ez plastikozkoa.

ONTZI-ARINAK

PLASTIKOZKO ONTZI ETA BILGARRIAK, BRIKAK, LATAK, TAPOIAK ETA TXAPAK.




PAPERA ETA KARTOIA



GOGORATU TAMAINA
HANDIKO KARTOIAK
GARBIGUNERA ERAMAN
BEHAR DIRELA.

ERREFUSA



OHARRA

Pixohialak, konpresak, etxeko animalien gorotzak eta hareak egunero atera daitezke plastikozko poltsa batean ondo itxita eta aparte jarrita.

BEIRA



SARTU BEIRA EDUKIONTZIAREN BARRUAN,
PLASTIKOZKO POLTSARIK GABE.



OLIOA



Edukiontzi honetara
sukaldean erabilitako
olioa botatzen da.
Eskuratu zure ontzi
berdea Udaleko HAZ
bulegoan eta ontzia
beteta botatzearekin
baterra, edukiontziak
hutsik dagoen beste
ontzi bat itzuliko dizu.



HERRIKO PUNTUAK:



- Altzibar, Kaleberria kalea
- Elizalde, Bidegainako goiko parkina
- Ugaldetxo, futbol zelaia
- Iturriotz, ekarpen gunea
- Arragua, anbulategiko parkina

AUTOETAKO OLIOA GARBIGUNERA ERAMAN BEHAR DA

Garbigunean ere badago
olioarentzat edukiontzia
eta edukiontzi horretan
olioa plastikozko, beirazko
edo brik motako ontzi
itxian bota behar da.

OHARRAK

- Ontzia erdia baino gehiago
beteta bota edukiontzira
- Ez bota olio berria dagoenean
- Irudian agertzen den ontzia
soilik erabili, ez utzi beirazko edo
plastikozko edozein ontzitan.






Behar ez duzun arropa eta oinetakoak edukiontzi honetara bota behar dira (nahiz eta apurtuta edo egoera txarrean egon). Baita osagarriak (poltsak, fularrak, txapelak, gerrikoak...) eta bestelako oihal zatiak ere bai.



PLASTIKOZKO POLTSA ITXI BATEAN SARTUTA UTZI.

HERRIKO PUNTUAK:

- Altzibar, Kaleberria kalea
- Elizalde, Bidegainako goiko parkina
- Ugaldetxo, futbol zelaia
- Alcampo supermerkatua
- Arragua, anbulategiko parkina
- Arragua, frontoia
- Iturriotz, ekarpen gunea
- Carrefour supermerkatua
- Garbigunea



Mota guztietako pilak (alkalinoak, gatzekoak, litiozkoak, botoi-pilak) eta telefono mugikorren bateriak saltzen dituzten saltokietara edo herrian zehar kokatzen diren edukiontzietara eraman daitezke. Puntu berde mugikorrean edo garbigunean ere utzi daitezke.



Behar ez diren sendagai guztiak botiketan egoten diren SIGRE puntura eraman behar dira.



S I G R E



- Zaharkituta dauden sendagaiak
- Behar ez dituzun sendagaiak
- Sendagaien bilgarriak (flasko, hodi, aerosol, anpolla...).



ATERA AURRETIK ABISATU

- 2 aldiz hilabetean
- Aurretik deitu egin behar da udalera

Zerbitzu honen bidez etxeetan sortutako tamaina handiko hondakinak jasotzen dira:

- Altzariak (mahaiak, armairuak, sofak...), koltxoiak, somierrak...
- Linea zuriko etxe tresna elektrikoak (hozgailuak, arropa garbigailuak...).
- Linea gris marroiko etxe tresna elektrikoak (telebistak, ordenagailuak...).



DEBEKATUTA DAGO:

- -Hondakin handiekin batera bestelako Hondakinak uztea, bereziki eraikuntzako obra txikietako hondakinak, etxeako konponketa eta berritze lanetako Hondakinak, pneumatikoak...
- -Hondakin handiak uztea traste handien egunetatik kanpo.

Hondakin handiak garbigunera eraman daitezke.



010 (Oiartzundik)
943490142

PUNTU BERDE MUGIKORRA (Furgoneta)



Puntu berde mugikorraren egutegia honakoa da:

Hileko 1. eta 3. astearteak:

Karrika: 09:00-09:20	Gurutze: 11:15-11:30
Altzibar: 09:30-09:45	Arragua: 11:40-11:55
Iturriotz: 09:55-10:10	Arragua: 12:05-12:20
Ugaldetxo: 10:20-10:40	Arragua: 12:30-12:45
Ergoien : 10:50-11:05	

Hileko 2. eta azken astearteak:

Elizalde (Don Eztebe plazan): 16:00-19:15

Bilketa-eguna jaiegunetan izanez gero, ez da bilketarik izaten.



GARBIGUNEA



OSTIRALETAN BERRERABILPEN GUNEA IREKIA.

Besteek utzitako objektuak hartu daitezke.



-Hondakin organikoak eta errefusa

-Gremioek eta beste ekoizle batzuek sortutako hondakinak.

-Hondakinak eramateko bolumenari eta pisuari dagokionez muga dago: pertsonako eta asteko ezin dira 2 m³ eta 250 kg baino gehiago eraman.

Ordutegi arrunta	Goizez	Arratsaldez
Astelehenetik ostiralera	09:30-12:50	16:00-18:50
Larunbatetan	09:30-13:20	15:30-17:50
Igandetan	10:00-13:50	Itxita

Udako ordutegia (07-15etik 09-15era)	Goizez	Arratsaldez
Astelehenetik ostiralera	09:30-12:50	15:30-18:20
Larunbatetan	09:30-13:20	15:30-17:50
Igandetan	10:00-13:50	Itxita



Oiartzungo hondakinen
gida gazteleraz
(guía en castellano)

Informazio gehiagorako eta ontziak eskuratzeko:

Oiartzungo Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) bulegoan.

Telefonoa: **010** Oiartzundik

Bestela: **943490142**



Hondakinak pertxan nola eskegi

Hondakinak **20:00etatik**
22:00etara zintzilikailuan
utzi behar dira eta **egun**
bakoitzean hondakin mota
bat utzi daiteke.



*Paper birziklatuarekin egina.